

# ARRASATE

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko irailaren 10a / 685. zenbakia

## AUTORIK GABEKO ASTEA

BIZIKLETAREN ETA GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERA BULTZATZEKO  
EKIMENAK IZANGO DIRA, BESTEAK BESTE



ORAIN ETA HEMEN: HASI DIRA GARIAKO LANAK/7 • KIROLA: DERBIA DOMEKAN/10



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 10**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**ZAPATUA, 11**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**DOMEKA, 12**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26

**ASTELEHENA, 13**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65

**MARTITZENA, 14**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09

**EGUAZTENA, 15**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**EGUENA, 16**  
Ámezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74

**EGUBAKOITZA, 17**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00  
Iguualatorioa. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak. . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea. . . . . 943 79 90 11

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak. . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA. . . . . 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua. . . . . 943 46 11 11  
Astelohenetik egubakoitzera. . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan. . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . . . egun osoa

**Arrasate**  
Astelohenetik egubakoitzera. . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. . . . . 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak. . . . . 943 03 53 11
- Ikuskatzaileak. . . . . 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak. . . . . 943 03 53 11

**ANBULANTZIARIK**  
Gipuzkoako Anbulantziariak. . . . . 943 45 87 44

**ERTZAINZAK**  
Arrasate. . . . . 943 79 71 99

**SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea. . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea. . . . . 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua). . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero). . . . . 943 12 01 62  
Gasa. . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak. . . . . 943 79 12 22  
PESA. . . . . 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza. . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza. . . . . 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Joan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>Domeka</b> 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Teresa eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)
<b>Domeka</b> 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	<b>Domeka</b> 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
<b>Domeka</b> 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>Domeka</b> 12:00 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

**URIBARRI-ERGUINGO JAIK**  
Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi, Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte. Gaur, meza egingo dute auzoko elizan, 19:00etan; 19:30ean, txikiteoa egingo dute trikitilariekin, Usaetxe plazatik. Eta 20:30ean, erretiratuek afaria izango dute euren elkartean. Horren ostean, dantzaldia izango da elkartearen alboan Gau Alai taldearen eskutik.

Bihar, 10:00etan trikitilariak auzotarrak iratzartuko dituzte. 11:00etatik 13:30era Txikixokoa izango da Usaetxe plazan (puzgariak, tailerrak eta beste). 16:00etan, mus txapelketa egingo dute; eta 19:30ean, txikiteoa trikitilariekin. 23:00etan, Kaixo taldearekin dantzaldia izango dute.

Domekan, Malvinas pilotalekuan pilota partiduak egingo dituzte, 11:00etan. 12:30ean, herri kirolak eta bertsolariak ekarriko dituzte; eta arratsaldean, Gorriti eta bere animaliek umeendako ikuskizuna egingo dute Arima Zubin.

**ODOL ATERALDIK**  
Martitzenean, hilaren 14an, eguaztenean eta eguenean, odol ateraldiak egingo dituzte Anbulatorioan, 16:30etik 20:00etara.

**AEDrenAGENDA**

**EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA**  
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.


**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**David Scott saskibaloijokalaria ekarri zuten**

Urbina-Maltzaga saskibaloitaldeko ordezkariak ziurtatu zuten Indianako David Scott jokalaria ekarriko zutela. Scottek hegal pibot postuan jokatzeko zuten, eta taldeko bizkarrezurra izatea espero zuten Txus Brizuena entrenatzaileak. Scottek 24 urte zituen, eta 1,98 metroko altuera.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Eraxi"*



1. Esnea jeitsi behiak errapera.  
— *Beixak, jasteillia ezezauna dalako ero, batzutan esnia jaso eitten dau ta ezin izaten da ezer eñ aiketa berriz eratxi arte.*
2. Jetzi, eraitsi, bildu.  
— *Aittak beixak erasten diardu.*

GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Arrasateko Udal Artxiboaren gainean**

Udal Artxiboaren izandako uholdeak direla-eta, liburu eta dokumentuen artean orduak egiten dituzten Jose Antonio Aspiazu historialariarekin eta Ramon Martin Zukiarekin —Oñatin dagoen Protokoloen Artxiboko arduraduna— izan gara astean. Modu berean, artxiboko dokumentuak garbitzen eta txukuntzen dabilen Leire Zubizarreta ikaslearen lana ezagutu dugu. Asteburuko gainbegiratuan berreskuratuko ditugu aipatutako elkarrizketak.



**Mekolaldeko dorre okupatua**

Azkenaldian okupazioaz asko berba egiten dela-eta, Bergarako Mekolalde dorrean bizi diren gazteen esperientzia gerturatu gura izan dugu herriko irratiari. Sabinekin kontatu zizun moduan, Aste Santua ezkerro zazpi gazte bizi dira bertan. Etxean konponketa eta lan ugari egin dituzte, baita ortu bat jarri ere. Pozik bizi direla esan zizun Sabinekin, eta, antza denez, bizilagunak ere gustura daude dorrean bizi diren auzotar berriekin.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 1	<b>13 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Domeka, 5	<b>36 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>36,7 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 1	32 °C	13 °C	— l/m²
Eguena, 2	28 °C	15 °C	12,6 l/m²
Egubakoitza, 3	28 °C	16 °C	0,5 l/m²
Zapatua, 4	32 °C	18 °C	— l/m²
Domeka, 5	36 °C	18 °C	4,3 l/m²
Astelehena, 6	29 °C	18 °C	17,4 l/m²
Martitzena, 7	28 °C	17 °C	1,9 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ZAPATUA**  
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Mekolaldeko dorre okupatua; Eukeni Barkero, paintball kirolaz; Jose Antonio Aspiazu eta Ramon Martin Zukia, artxiboaren garrantziak...

**DOMEKA**  
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**

09:00-11:00 **UDA GIROAN**  
Albisteak.  
Elkarrizketak.  
Estilismoaren tartea.  
Hondartzak, igerilekuak eta urtegiak.  
Eguraldi iragarpena.  
Zozketak, zorion-agurrak...

11:05 **Musika**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:15 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**

14:00 **UDA GIROAN** errepikapena.

19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**



**KALEINKESTA/ Politikuendako adin mugarik egon biherko leuke? Zela ikusten dozu Fragan kasue?**



**JULIO ROPERO**  
Langillie



**DANIEL SAIZ**  
Langillie




**EZTI ARLUZIAGA**  
Langillie



**IBAN GONZALEZ**  
Langillie



**LESMES PEREZ**  
Langillie



**AITOR PAVON**  
Ikaslie

Baietz uste dot, adin batek aurrera gauzak ez die eta ondo egitten. Fragan kasuen, berak jakingo dau ze egin, baiñe pertsona gaztieu batek hobeto egingo leuke lan.

Neuk uste dot politikuek langille normalen moduen hartu biherko leukiel jubilañue. Fragana ez dot ondo ikusten. Gizon horrek oin dala 20 urte egon biherko leuke jubilaute.


Neuk uste dot edadie limitaziñue dala gauzak egitteko orduen; politikuek be danon moduen jubilaubihherko litzakez. Fragana ez dot ondo ikusten; gainera, bera izenda...

Pertsonie zenbat eta nagusixaua izen, daukon ideak orduen eta zaharrauek. Politiko gazte batek hobeto jakingo dau gazterixiek ze gure dauen. Nagusixen ideek nagusixendako balixo daue.

Neuk pentsetan dot politikuek daukiena baiño narru txikiñaue euki biherko leukiel, eta gauzak bestion moduen egin. Lan egin barik edarto irabazten daue hareik.

Bestion moduen, politikuek be edade bat euki biherko leukie jubiletako, eta atzetik datozen idea barrixei lekua ixteko. Politiko gaztiek lekue euki biherko leukie.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXALOAK BURDIN HESIA** Saiolango erabiltzaileek salatu zuten erai-kinarene barnealdean zabor asko pilatzen zela. Itxuraz, hainbat gaztek asteburuak hantxe pasatzen zituzten eta ez zituzten zaborrak jasotzen. Langilleek astelehenero oso zikin aurkitzen zuten barnealdea. Oporren aurretik, burdin hesia ipini dute, eta eskertzen dute, baina berau margotzea eskertuko lukete, erdi herdoildua dagoelako.

**ETABARRUAN...**

ORAIN ETA HEMEN / 7      KULTURA / 11      KULTURA / 12

**Uribarri-Erguingo jaiak**

Gaurtik, egubakoitza, domekara arte ospatuko dituzte Uribarri-Erguingo auzoko jaiak.

**Liburutegia Interneten**

Udal Liburutegiko dokumentuak laster Interneten izango dira, eta horrek hobekuntzak ekarriko ditu.

**Desprezio musika taldea**

Ibarreko lau neskek osatutako Desprezio musika taldeari elkarriketa egin diogu asteen.

**ASTEKODATUA**

**40**

**LAGUN DABILTA UDAL ARTXIBOA BERRESKURATZEN**

Udaletxean jazotako uholdearen ondorioz, Udal Artxiboko mila-k dokumentu Uarkapeko pilotalekuan daude. 40 lagun dabilta dokumentuak lehortzen, berreskura daitezen.

**BESTEKEESANA**

“09:00etako bisitarako prestatzen ari naiz. Lasai nago, nire aitaxo dator furgonetan. Ezin du gidatu eta, furgonetari esker, bakarrik ere, lasai etor daiteke (...). 12:00etako bisitako beste kide baten herriko bi lagun datoz. Ikasleak dira, eta zailtasunak dituzte halako bidaia bat ordaintzeko. Furgonetei esker, bi hilabetean behin jaitsi ahal dira. Eta halako hamaika adibide gertatzen dira astebururo. Gure bisita eta aurrez aurrekoak posible egiten dituzte Euskal Herriko espertxeraino datozen furgonetek eta, nola ez, horiek ekartzen dituzten gidari boluntarioek, euren bisitarik izan ez arren, hamaika senide eta lagunen bisitak bermatuz. Bisita orduan hor egotea besterik ez zaigu gelditzen, patxadarekin itxoiten diegu”

gidatu eta, furgonetari esker, bakarrik ere, lasai etor daiteke (...). 12:00etako bisitako beste kide baten herriko bi lagun datoz. Ikasleak dira, eta zailtasunak dituzte halako bidaia bat ordaintzeko. Furgonetei esker, bi hilabetean behin jaitsi ahal dira. Eta halako hamaika adibide gertatzen dira astebururo. Gure bisita eta aurrez aurrekoak posible egiten dituzte Euskal Herriko espertxeraino datozen furgonetek eta, nola ez, horiek ekartzen dituzten gidari boluntarioek, euren bisitarik izan ez arren, hamaika senide eta lagunen bisitak bermatuz. Bisita orduan hor egotea besterik ez zaigu gelditzen, patxadarekin itxoiten diegu”

SAIOA ALZUA, AMAIA ARRIETA...  
'GARA'/04-09-06

**HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo**



*Munduak aurrera jarraitzen du*

Orain dela gutxi hartu genituen oporrak (orain dela gutxi diot, berehalakoan pasa direla ematen du-eta). Betiko lanak utzita, gure inguruan eguneroko bizitza gelditu egiten dela ematen du. Nahiz eta ahaleginak egin gertatutako berriak jarraitze-ko, ez dira beti bezala jasotzen. Urrutiago gertatzen direla-edo ematen du. Baina oporrak ere amaitzen dira (egoera penagarria, benetan) eta etxera edo betiko errutina- ra bueltatu egin behar izaten gara.

Bueltatzean konturatzen gara mundua ez dela gelditu, bere betiko erritmoan jarraitu duela (beno, egia esateko Arrasate gelditu egiten dela esan dezakegu, oso zerbitzu gutxi egoten da-eta). Iraileko lehenengo ARRASATE PRESSa hartu eta irakurri dezakegu Monterongo parkea oso gaixo dagoela, obra berriak hasi edo izan direla han eta hemen, Udaletxeko artxiboak urak kaltetu dituela...

Baina Arrasatekoaz gain, Irakeko zentzugabekeriak aurrera jarraitu du, oporrak gabe. Errusian, Ipar Osetian, gertatutakoak ere ezin du izenik izan (beste egoera baten adierazgarri izan arren). Azken hauek, bi adibide besterik ez dira, gauzak zelan dauden argi erakutsi dizkiguten bi adibide. Jakingo ez ditugun gertakari asko gertatuko ziren han eta hemen. Beti bezala, batzuek nahi dutenaz bakarrik enteratuko garen arren, esan nahi dudarentzat balio dit.

Garbi dago denboraren bideak, oporretan ere, aurrera jarraitzen duela, eta guri dagokigula oporrak utzita berriz mundura bueltatzea. Oso ondo etortzen zaizkigu oporrak, geldiunetxo bat egin eta gero aurrera jarraitzeko. Orain aurrera jarraitzea tokatzen zaigu, eta indar berrituak etorri garela suposatzen denez, animuak hartu eta utsi bideari, munduak aurrera jarraitzen du-eta.

**“Denboraren bideak oporretan ere aurrera jarraitzen du, eta guri dagokigu oporrak utzita mundura bueltatzea”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran  
ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia  
LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88  
ISSN  
0214-4654  
TIRADA  
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



## ASTEABIHITZETAN

**Alberto Iñurrategi Arrasate Irratian**

Alberto Iñurrategi Arrasate Irratian izan zen joan den egunean. Mendizale atxabaltarrak uztailleko espedizioaren eta etorkizuneko asmoen gainean egin zuen berba.

Azkeneko espedizioan, Jon Beloki eta Jose Carlos Tamayo izan zituen aretxabaletarrak espedizio lagun. Hirukoteak helburu bikoitza zuen hasiera batean: G-3 eta G-4 mendiak igotzea. Karakorumen, baina, eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta G-3a igotzearekin konformatu behar izan zuten. Tamayo, gainera, ez zen tontorreraino iritsi.

**Ikasleak artxibategia berreskuratzen**

Arrasateko Udalak kontratatutako ikasleak egunean hasi ziren lanean, Udaleko artxibategiko liburu eta agiri bustiak lehortzen. Diputazioak bidalitako lau adituren gidaritzapean dabilta lanean, eta gutxi gorabehera 20 egunerako lana izango dute.

Adituek Uarkape aukeratu zuten ondo aireztatutako lekua delako. Liburuen egoeren arabera, agiri batzuk lehortu egingo dituzte eta beste batzuk izoztu. Gero, gasifikazio prozesu baten bitartez tratamenduarekin jarraitu ahal izateko. Baina hori lehen urratsa baino ez da, lehortu eta gero lan handia egongo da-eta egiteko.

**AUKEAren kirol eskaintza**

AUKEAk dagoeneko gertu dauka aurtengo ikasturterako kirol eskaintza. Hilaren lehen ireki zuten izena emateko epea, eta gaur amaituko da. Ikastaro gehienak, berriz, astelehenean hasiko dituzte.

Aurten ere, azken urteetan ezagun eta ohiko bihurtu diren kirolak egiteko aukera emateaz gain, moda-modan daudenak praktikan jartzeko modua ere eskaintzen du AUKEAk. Horrez gain, muskulazio gela dagoeneko irekita dago.

**Epeleko bidegurutzean lanak**

Autobideko lanak direla-eta, Epeleko bidegurutzean aldaketak egin dituzte. Joan den egubakoitzetik hasita, Epeletik Kanpanzarrera joan gura duenak, lehenengo, Elorregiraino joan behar du; hango biribilgunean buelta eman eta Arrasateko noranzkoa hartuta Epelen gora abiatu. Hori konpondu artean, hobe da Muxibarren gora egitea.

**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran****Umeak**

**B**itxia izaten da opor ostean komunikabideetan umeen eskolako lehen egunaren gaineko berriak ikustea. Txikitan inor gutxiri pozten zigun ezaguna genuenetik arrotza egiten zitzaigunera derrigor-tuta joateak. Bat baino gehiago negarrez hasten da, baina, zoritxarrez, halakoa da bizitza eta horretara ohitu behar.

Azkeneko egunotan, berriz, lehen eskolatzearen albisteak zeharo gazi-gozotu zaizkit. Ezinezkoa egiten zait Osetiako eskolan gertatutakoa ahaztea. Lehen eskolako eguna zuten, eta askorendako sarraskia bilakatu zen.

Ez dakit zelan bururatu zitzaizen txetxeniarek eskola baten bahituak hartzea; ez nago ados eta ez naiz batere fidatzen Errusiako gober-

nuek "Txetxeniako arazoa konpontzeko" erabiltzen dituzten metodoetaz; sinisten diot erbestean dagoen Txetxeniako zilegizko presidenteari Errusiako armadak dagoeneko milaka ume txetxeniak hil dituela dioenean; eta badakit, Iraken ere, beste leku askotan moduan, ehunka ume hil dituztela. Mundua gero eta zoroago dago, baina nahikoa dute umeek eskolako lehen egunetik bizitza gazi-gozoa dela ikasten.

**ASTEKOIRUDIA****OPORREN OSTEAN, HAINBAT LAN BUKATUTA AURKITU DITUGU**

Urtero moduan, oporretatik bueltan, hainbat gauza aldatuta aurkitu ditugu herrian. Ohikoa da abuztuko hilabete lasaia herri lanak egiteko erabiltzea. Azken baten, jende askoz gutxiago dabil eta errazago da halakoak egitea. Besteak beste, Gelma pareko biribilgune hori bukatuta aurkitu dugu. Santa

Marina, erdialdea eta Musakola banatzen dituen bidegurutze horretatik auto asko pasatzen dira, eta mesede egingo dio biribilguneak. Azkeneko urteetan Arrasate itxura txukuna hartzen dabil, eta merezi du lanean jarraitzea, oraindik gauza asko egitear daude-eta. /ARRASATE PRESS

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

Maritxu kajoi egunerako  
hartu txanda!  
Orraztu eta makilatu 21

Lapurdi 3. Zigarrola. ARRASATE  
Tel.: 943 79 65 65



Aretz  
Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

Maritxu egunean  
zoragarri egon zaitezten...

Lore

Olarte kalea 10 Tel.: 943 79 52 50  
ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa
- Solariuma
- Makillaje






## KILO ETA LAUREHUN GRAMO PASATXOKO TOMATEA, ELEXGARAI BASERRIAN

Elexgarai baserriko Pilarrek erakutsi digu argazkiko tomate handi hori: "Aurreko batean ikusi nuen kilo eta berrehun gramoko tomate bat egunkarian atera zutela. Gure tomatea pisatu genuen, eta hara! Egunkariko bano handiagoa!". Pilarren esanetan, aurten joan den urtean baino tomate gutxiago irten dira, baina tamainaz askoz ere handiagoak: "Ez dakigu zergatik den, baina guk ura zuzenean bota beharrean ingurura botatzen diegu, eurek xurga dezaten". Elexgaraiok oparitu egin digute tomatea. Eskerrik asko!!!

## 31.000 EURO IRABAZI DITU ARRASATEAR BATEK KINIELAN, SAN ANDRESEN

Arrasatear batek 31.000 euro irabazi ditu hamahiruko kiniela asmatuta. Irabazleak San Andres auzoan dagoen Jose Maria Garairen administrazioan egin zuen kiniela, eta 31.000 euro irabazi ditu. Seguruenik, kiniela San Andresen egin bazuen ere saria jasotzera ez da hara joango. Dakiguna da irabazleak 12 euroko kiniela egin zuela, eta hamalautik hamahiru emaitza asmatu zituela. Guztiok eskertuko genuke diru hori, baina hamalauko asmatu izan balu...

**2004/2005  
EUSKARA  
IKASTAROAK**



Eskaintza: EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE ikastaroak.  
Azterketak prestatzeko ikastaroak: EGA, HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK...  
HABEren diploma ateratzeko azterketak EUSKALTEGIAN bertan.  
MINTZAMENA lantzeko ikastaroak, ARRASATEKO EUSKARA,  
MERKATARIAK, GURASOAK, BARNETEGIAK, KANPO EKINTZAK.  
Erritmo eta ordutegi egokituak; txandakako taldeak.  
Beka sistema daukagu. Informa zaitez!  
Matrikula epea: Irailaren 1etik 24ra.  
Bulego ordutegia: Goizean: 10:00-13:00 / Arratsaldean: 15:00-18:30

### Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /  
maila guztiak /  
Ordutegi zabala /  
Bekak / HABEko diplomak ...


**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 70 77 | Faxa: 943 79 91 43 |  
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**UDAL EUSKALTEGIAK**

www.udaleuskaltegiak.net

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irún | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz





ARTXIBOA

Batez ere bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera bultzatzeko ekimenak egingo dituzte.

**INGURUMENA/** Irailaren 16tik 21era Autorik Gabeko Astea Arrasaten

## Autorik Gabeko Astea, autoa gutxiago erabiltzearen alde

UBANE MADERA

**Eguenean, hilak 16, hasi eta irailaren 21era arte, Autorik Gabeko Astea izango da Arrasaten. Hala, gai horrekin lotuta, egunero ekitaldi bat izango da; tartean, Bir-Zikleta izeneko azoka txikia. Era berean, herri-autobusa doan erabili ahal izango da.**

Gaur egungo gure gizarte honetan automobila erabiltzeko joera handia dugu eta horrek, besteak beste, ingurumenari eta herriaren eguneroko bizitzari eragiten dio. Hala, azken urteotan autoa gutxiago erabiltzearen aldeko ekimenak antolatu ditu Udalak eta aurtan ere hala izango da: hilaren 16tik 21era arte Autorik Gabeko Astea izango da Arrasaten.

### BIZIKLETA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Besteak beste, bizikletaren eta garraio publikoaren erabilera bultzatzeko ekimenak antolatu dituzte. Datorren egunean, esaterako, bizikletan ibiltzeko orduan kontuan hartzeko bide segurtasuneko arauen eta arriskuen prebentzioaren gaineko dekalogoia banatuko diete Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei.

Egubakoitzean, berriz, bizikletak zaintzeko lantegia izango da Herriko Plazan, 17:00etan hasita. Mikel Lizarralde bizikleten balaztak zela aldatu, zulaketak zela konpondu, gurpilak zela zentratu eta halakoak esplikatu ditu. Era berean, konpondu beharreko bizikletak eraman daitezke,

aukera egonez gero, plazan konponduko dituzte-eta.

Hurrengo egunean, zapatuan, Bir-Zikleta azoka egingo dute, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era. Gogoratu beharra dago azoka horretarako bigarren eskuko bizikletak edo osagarriak bihar, zapatua, martitzenean eta egunean eraman behar direla azoka txikira.

### BIDEAK ITXITA

Bestalde, domekan, gazteendako bizikletan ibiltzeko txangoa izango da, Athlon-ek antolatuta. Herri barruan ibiliko dira, ordubetez-edo. Horren ondorioz, zehaztu barik dauden zenbait errepide itxi

*Herriko zenbait errepide itxi egingo dituzte irailaren 19an eta irailaren 21ean*

*Irailaren 16tik 21era Arrasateko herri-autobusa doan erabili ahal izango da*

egin beharko dituzte. 11:00etan aterako dira txirrindulariak Seberretik eta Herriko Plazan bukatuko dute ibilaldia. Parte hartuko duten ikasleen artean, bizikleta bat zozketatutako dute. Esan beharra dago, zortzi urtetik behar-rako umeek pertsona nagusi batekin joan beharra dutela.

Egun berean, 12:30ean, Txatxilipurdik antolatutako oztopo eta trebetasun jolasak izango dira.

Eta hurrengo egunean, astelehena, Arrasateko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren nondik norakoak azalduko dituzte osoko bilkuren aretoan.

### AUTORIK GABEKO EGUNA

Bukatzeko, irailaren 21ean, martitzena, Autorik Gabeko Eguna izango da. Hala, arratsaldean izango diren ekimenez gain, goizean, alde zaharra, Biteri eta Garibai itxita izango dira, ibilgailuendako. Zamalanetarako astia eman ostean itxiko dituzte aipatutako guneak. Arratsaldean, berriz, 17:00etan, txapa lantegia eta txikiendako marrazki-lehiaketa izango dira eta 18:30ean, ikasleendako antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa egingo dute, plazan.

### HERRI-AUTOBUSA DOAN

Horrez gain, irailaren 16tik 20ra (19an izan ezik) herri-autobusa doan erabili ahal izango da; betiere, Udalak etxez etxe banatuko dituen esku-orrietan agertzen den bonoa aurkezten bada. Eta irailaren 21ean ere doan izango da; kasu horretan ez da bonorik aurkeztu behar.



Arrasateko  
euskalgintza



**LEIRE BERGARA ETA JOSEBA EZPELETA**

*“Euskalgintzaren web orria abiarazi nahi dugu orain”*

U.M.

**E**uskalgintzaren tarte honetan, datozen hilabeteotan euskalgintzak berak egingo duen lana dugu aztergai. Euskalgintzako dinamizatzaile Leire Bergararekin eta AEDko lehendakari Joseba Ezpeletarekin izan gara berbetan:

**Udako etenaldiaren ostean, zeintzuk dira Gabonak arteko erronka nagusiak?**

Nagusienetako bat da orain arteko lan dinamikari eustea. Plana abiatu zenetik bi urte pasatu dira; bi urte daramatzagu elkarrekin lanean; horretarako egitura eta dinamika zehatzak sortu dira, hainbat lan talde daude lanean eta hemendik aurrera ere (abendura bitartean) horri eustea eta ahal den neurrian hobetzea izango da gure erronka. Batez ere, gure arteko komunikazio arin eta eraginkorra lortzea. Bestalde, erronken artean egin beharra dugun beste gauza bat da finantziario publikoaren egonkortasuna bermatzea. Ez aurtengorako bakarrik baizik eta hemendik aurrerako funtzionamendu normalerako egonkortu beharra dago.

**Izan ere, talde asko elkar-tu zarete euskalgintzaren alde lan egiteko...**

Bai, 13 erakunde. Euskalgintzako 12 erakunde eta Udala elkartzen gara eta guztion artean adostutako esparruan gabilitza lanean eta urtez urte adosten ditugun ekintzak garatzeko lan taldeak sortzen dira, horren jarraipen zuzena egite-

ko jarraipen batzordea dago eta haren gaintetik organo gorena, euskalgintzaren mahaia; azken horretan urtean birritan elkartzen gara erakunde guztietako ordezkariak jarraipen orokorra egiteko eta aurrera begirako urratsak finkatzeko.

**Aipatutako erronkak lortzeko, zein lan tresna erabiliko dituzte?**

Garrantzitsua izango da, adibidez, orain abiarazi nahi dugun euskalgintzaren web orria. Orri horrek ahalbidetuko du jendearekiko komunikazioa eta era berean, inportantea izango da gure barne-funtzionamendurako; intranet-a izango du eta horri esker guztiok eskuragarri izango dugu dokumentazio guztia, bileretako aktak... eta gure arteko komunikazioa eta informazioa arinagoa izango da.

**Herriarrak zer aurkituko du web orri horretan?**

Oraindik lantzen gabilitza, baina, alde batetik planaren gaineko informazio guztia izango da; partaideen gaineko informazioa eta harremanetarako helbideak izango dira, baita euskararen inguruko albisteak ere eta eztabaida-leku bat abiarazteko asmoa dugu herriarrak euren iritzia bidaltzeko.

*“Gabonak arte dugun erronka nagusienetako bat da orain arteko lan dinamikari eustea”*

*“Lehen euskararen alde egiten zen lana modu hobean egiteko elkar-tu gara euskalgintzan”*



# Garaiaren lehenengo fasea eraikitzen hasi dira Uribarri auzoan

GA./U.M.

Hasi dituzte Garaia eraikitze lanak Uribarri. Oraindik ere lurjabeekin lurrak erosteko negoziatze prozesuan dabilta, baina premiazko okupazio izendatu eta lurrak mugitzen hasi dira. Aldaketa handiak ikusiko ditugu inguruan.

Atzerapenak atzerapen, hasi dituzte Garaia Berrikuntza Gunea eraikitze lanak Uribarri auzoan. Hain zuzen ere, abuztu hasieran sartu ziren hondeatze makinak baserri-uzoan eta lurrak mugitzen-eta hasi ziren. Era berean, asmoa zen abuztu Gautxori izeneko etxea botatzea, baina etxearen aurre aldean dagoen argindarraren harria eta etxearen azpitik pasatzen den ubide bat tarteko, oraindik ez dute etxea bota. Edozelan ere, azken xehetasun horiek egin bezain laster botako dute, hila-bete honetan bertan.

## PREMIAZKO OKUPAZIOA

Lanen gainean, esan beharra dago hasita dauden arren, Uribarriko zenbait lurjabe eta Garaia



Aurreikuspenen arabera, hilabete honetan bertan botako dute Gautxori.

ordezkariak oraindik lursailak erosteko negoziatze prozesuan dabilzala. Hala, berrikuntza gunekoek lanak hasteko baime-na lortu dute premiazko okupazioa izenekoaren bitartez.

## LEHENENGO FASEA

Egiten hasi diren lanak Garaia Berrikuntza Gunearen aurreneko fasekoak dira. Gune osoko azpie-

giturak sartuko dituzte eta hamar mila metro koadroko eraikin bat jasoko dute, lehenengo proiektuak abiarazteko. Bost milioi eta erdiko aurrekontua du fase horrek eta 20-22 hilabeteko epe-muga.

Oro har, aldaketa dezente ikusiko ditugu Uribarri baserri auzoan, besteak beste, Garaia egiteko zenbait baserri eta lantegi desagertu egingo direlako.

# Emakumeen kontrako tratu txarrei aurre egiteko udal plana nahi dute

UBANE MADERA

Emakumeen kontra gertatzen diren tratu txarrei aurre egiteko udal plana diseinatu gura du Udalak. Hori egiteko pertsona bat behar dela-eta dirulaguntza eskatu dio Enpleguko Institutu Nazionalari. Orain, haren erantzunaren zain daude.

Azken urteotan, urtero antolatu dituzte Udalak eta emakumeen batzordeak ekimenen bat tratu txarriak salatzeko. Horrekin batera, orain, gizartearen sentibilizazioa kaleratzeko bideak landu nahi dituzte. Eta era berean, tratu txarreen aurrean erakundeen arteko

elkarlana beharrezkoa dela ikusten dute.

Hala, hori guztia borobildu eta Emakume Sailak egoki ikusten du Arrasaten tratu txarren kontrako plangintza orokorra izatea. Hau da, orain arte, tratu txarren aurrean Udalak eman izan duen asistentziatzko zerbitzuarekin bate-

*Tratu txarren kontra prebentzioaren bidea landu nahi dute Udalean*

ra (tratu txarra gertatzen denean ematen duena), prebentzioa lantzeko bidea garatu nahi dute, tratu txarrei aurre egiteko bidea, hain justu ere. Hala jakinarazi digu Emakume Saileko ardura-dun Maite Barreñak.

Eta esanda guztia gauzatzeko, udal plana diseinatu beharra dago. Horretarako pertsona baten laguntza behar du Udalak eta Enpleguaren Institutu Nazionalari eskatu dio hori gauzatzeko dirulaguntza. Orain, aipatutako erakundearen erantzunaren zain daude Udalean; eta erantzuna ezezkoa izanez gero, Udalaren asmoak gauzatzeko bestelako formulak aztertu beharko dituztela gaineratu digu Maite Barreñak.


## LABUR

### Datorren astean hasiko dira irailko odol ateratzeak egiten

Hilero moduan, Arabako Odol Bankukoak Arrasatera etorriko dira irailan. Hala, deialdia egin gura diete herriko odol-emaleei datorren astean, martitzenean, eguaztenean eta eguenean odola ematera joan daitezten. Era berean, hurrengo astean ere izango dira Arrasaten, beste hiru egunez, hain zuzen ere, 21ean, 22an eta 23an. Ordutegia betikoa izango da: 16:30etik 20:00etara; eta lekua ere bai: Arrasateko anbulatorioa.

### Etzidamu, domeka, Arantzazura urteroko erromesaldia egingo dute Arrasatetik

Arantzazura oinez joan behar dutenak 06:30ean aterako dira Kontzeziñotik. Bedoña-San Josepe-Larrino-Urkulu-Urrexola-Jaturabe eta Gesaltza ibilbidea egingo dute, hiru bat orduan. Han, autoz edo autobusez joan direnekin elkartuko dira, azken hiru kilometroak batera egiteko. Eta Arantzazun, 12:00etan, meza entzungo dute.



### Asteburuan, Uribarri-Erguingo jaiak

Gaur, 19:00etan hasiko dira Uribarri-Erguingo jaiak. Meza esango dute hango parrokiari, eta 19:30ean, txikiteoa egingo dute Usaetxan; iluntzean, 20:30ean, erretiratuendako afaria izango da. Bihar, berriz, besteak beste, 11:00etatik 13:30ak arte eta 16:00etatik 19:30ak arte kart autoak, bitsarekin borroka eta puzgarriak izango dira Usaetxan. Arratsaldean, 16:00etan mus txapelketa egingo dute, 19:30ean txikiteoa izango da eta gauean dantzaldia. Bukatzeko, domeka goizean pilota partiduak eta herri kirolak izango dira eta arratsaldean, besteak beste, Gorritiren animaliak.



ILE APAINDEGIA

**Maritxu Kajoi**  
egunerako makilatu eta orraztu  
20 €tik aurrera

**ZATOZI!**

Maalako Errabala 21-B  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 16 31

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA



Mitarte 10.  
Aretxabaeta  
943 77 15 82

- Plater prestatuak  
- Familia edo lagun arteko bazkariak  
- Bestelako ospakizunak



## BOTEPRONTUEN

## Maria Jose Iglesias

## GAINDEGI KAFETEGIA

XABIER URZELAI

Maria Joseri ez jako tabernan edo restaurantien lan egiteko esperientziarik falta. Mondraguetarra bada be, Ezkio-Itsason bizi izen da oin arte. Oin, Zigorrolan zabaldu berri dau negozioie, eta herrira bueltau da barriro be. Ilusiño haundixekin dau.

Nundik nora ibilli zara agostuen?

Hamen sartute egon gare. Agostuen 18xen zabaldu geuen negozioie, eta ordura arte be lanien ibilli gare, dana preparentan. Aurten ez dogu bakaziñorik euki.

Noiztik negozio hori zabalaketako asmue?

Urtebete ibilli gare horrei idea horrei bueltak emuten. Lokal hau topau geuen, eta gustau egin jakun, leku onien dauela uste dogu-eta. Finantziaziñue topau eta animau egin gitzen.

Oin dala egun gutxi zabaldu dozue tabernie. Ze moduz?

Egixe esatiarren, oso pozik gauz. Egixe da taberna eta negozio asko itxitte euzenien zabaldu dogule geurie, eta benetan balixo dauena dala herrixe normaltasunera bueltaketan daniien ikustie. Oin arte, baiñe, jente asko etorri da, eta uste dogu pozik juen diela. Hamendik aurrera, ikusi egin biher.

Zela definiduko geuke Gaindegi? Tabernie, kafeterixie, restaurantie...

Danetik apur bat. Astien ziher, eguerdixetan eguneko menuek emuten dittugu, eta gabetan eta aste bukaeretan plater kombinauek, bokadilluek, hanburgesak... Eta, horretaz aparte, kafe ona daukogu, hortan...

Ze lan egitten dozu gustoren?

Barran egotie gustetan jat, jentiekin tratuen.

Eta gehixen kostetan jatzun lana?

Kontabilidatie eruetie ez jat askorik gustetan.

Nundik dator Gaindegi izena?

Hasieran Talaia edo Atalaya



XU.

*"Eguerdixetan eguneko menuek emuten dittugu, eta gabetan plater kombinauek..."*

izena jartekotan egon gitzen, lokal hau nun dauen kontuen hartute. Sinonimuek topetan ibilli gitzen, eta azkenien Gaindegi elegidu geuen.

Holako negozio batek funtzionetako ez dauko zertan erdialdien egon, ala?

Ez dot pentsetan. Automobille errex apartetako leku bat da hau; inguruen lantoki asko dau, eta Zigorrola gerueu eta inddar haundixae hartzen dabil. Gaiñera, gu gauzen lekuen etxebizitza mordue egin daue.

Lana alde batera itxitte, ze falta jako Mondragueri?

Automobille errexau apartetako aparkalekuek.

*"Mondraguen atentziñue emuten dustena da jardiñek ze ondo zainddute dauzen"*

Eta ze dauko ona?

Jeneralien dana gustetan jat. Baiñe atentziñue emuten dust jardiñek ze ondo zainddute dauzen.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

*El señor de los anillos / Los pilaren de la tierra / Queen.*

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Lababajillasa ipinttie. Lan hori neuk egitten dot; izen be, gizonak hamar plater sartzen dauen lekuen neuk hoge sartzen dot.

Kapritxo bat.

Afrikara biajetie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Etxien, familixiekin.

## NIREBIDAIAHURA/ Leire eta Irati

Europako ekialdea / 2004ko abuztuan

Leire Lardizabalek eta Irati Pagoagak aurtengo oporrrak ere Interrail bidez egin dituzte. Izan ere, joan den urtean ere horrela ibili ziren, baina orduan Europako mendebala aukeratu zuten. Aurten, berriz, ekialdean ibili dira: "Bidaia kontatzen hasi aurretik, baina, gomendio bat eman gurako genuke. Interrailen ibiltzeko zonak aukeratu behar dira, eta zenbat eta zona gehiago aukeratu, bidaia orduan eta garestiagoa da. Gure ustez, tren Hendaian hartzea baino gomendagarriagoa da bisitatu gura den lurraldera hegazkinez joatea, eta han hartzea Interrail txartela. Askoz ere erosoagoa da, eta ez dugu uste garestiagoa denik, hegaldietan eskaintza politak egoten dira-eta. Gainera, zona askoz ere gutxiago hartu behar dira".



*"Lehenengo zatia hegazkinez egingo genuke"*

Leirek eta Iratik uztailearen 31n hasi zuten bidaia. Hendaian hartu genuen tren, eta Frantzia gurutzatu eta gero Italiara pasa ginen, Veneziaara. Gau bat baino ez zuten egin Italian: "Veneziaara joanez gero, baporetoa (tranbia modukoa) ez ordaintzeko gomendatzen dizuegu. Zazpi euro ordaindu genituen, eta adar-jotzea iruditu zitzaigun". Leireren eta Iratiren helburua Kroaziara lehenbailehen iristea zen: "Eta, bi egun behar izan genituen horretarako. Horregatik diogu hobe dela lehenengo zatia hegazkinez egitea, bi egun haietan diru asko gastatu genuen-eta".

Kroazia izugarri gustatu zitzaien: "Iparraldetik hegoalderaino joan ginen, eta kostaldea benetan da ederra. Hori bai, han ez dago trenean ibiltzerik, eta autobusetan eta ferryetan egin genuen bidaia guztia". Astebete egin zuten Kroazian: "Oraindik nahiko merkea da, baina edozerengatik ordaindu egin behar da. Esate baterako, motxila autobusera sartzeko aparte ordaindu behar izan genuen. Gainera, seguru gaude urte gutxiren buruan lurralde hori asko garestituko dela". Datorren astean jarraituko dugu Leirerekin eta Iratirekin, trenean, Europako ekialdean barrena.

XABIER URZELAI



Kroaziatik Budapestera abiatu ziren Leire eta Irati.

estetika zentroa  
**angela**

Ferrerias 35 ARRASATE 943 79 88 23

**Angela Estetika Zentroa**

**100 €-ko deskontua**

Laser bidezko zangoen depilazioan saio bakoitzeko egingo da deskontua

Saio kopurua norberak erabakiko du

Gorputzeko gainontzeko ataletan laser bidezko depilazioa egin nahi baduzu, zatoz eta prestatu ditugun eskaintza bereziak ezagutu itzazu.



ERRUGBIA

# Arrasateko taldea: Estatuko Lehen Mailan jokatzeko gogor entrenatzen

Arrasateko mutilek denboraldi gogorra izango dute, eta ahalik eta ondoen ibiltzeko abuztuan hasi ziren entrenatzen

XABIER URZELAI

Arrasateko Errugbi Taldekoek erronka handia izango dute aurten, Estatuko Lehen Mailan jokatzeko dute-eta. Hori dela-eta, inoiz baino seriotasun handiagoarekin dabilta lanean. Argi daukate zein den aurtengo denboraldiko helburua: mailari eustea.

Abuztuaren 24an hasi ziren Arrasateko Errugbi Taldeko lagunak entrenatzen. Eta Liga Txapelketa urriaren 3an hasiko dute. Hortaz, argi dago David Jauregiren mutilek sasoi onean hasi gura dutela. Arrasatek, Zarautzekin batera, Estatuko Lehen Mailan jokatzeko txartela eskuratu zuen joan den denboraldian; arrasatearrak maila horretako B multzoan izango dira. Multzo hori Gernikak, EHU Bilbok, Zarautzek, Atletico San Sebastianek, Bera Berak, Getxo Arteako bigarren taldeak eta Santanderko Independentek osatuko dute.

**BETERANOEN LAGUNTZAREKIN**

Estatuko Lehen Mailan jokatzeko, derrigorrezkoa da senior mailan bi talde izatea. Arrasateko senior mailan bi talde osatzeko nahiko jokalarik ez dituenek, betereanoen laguntza izango dute. Talde horrek Gipuzkoako probintzial mailan jokatu du, eta maila hori ezin hobea da errugbia



ARRASATE ERRUGBI TALDEA

Joan den zapatuan, Arrasateko taldeko betereano eta gazte mailakoek seniorren eta kadeteen kontra jokatu zuten.

ezagutu nahi dutenek lehenengo urratsak egiteko. Hori dela-eta, jakin, errugbia ezagutzea gura duenak Arrasateko Errugbi Taldearen ateak zabal-zabalik duedela. Horretarako, nahikoa da martitzenetan edo eguenetan

Musakolako Kiroldegira joatea, taldeak orduan entrenatzen du-eta. Eta 659 43 92 62 telefonora deituz gero, taldeko zuzendaritzako kide Joseba Maidagan arduratuko da taldearen gaineko informazioa emateaz.

**LAGUN ARTEKO NORGEHIAGOKA, BIHAR** Aurre-denboraldiarekin jarraituz, Arrasateko lagun arteko norgehiagoka jokatu du bihar, zapatua, Iruñeko taldearen kontra. Zeingehiagoka 16:30ean hasiko da, Garagartzako zelaian.

KIROLDEGIA

## Astelehenean irekiko dituzte barruko igerilekuak

Musakolako Kiroldegiko barruko igerilekuak astelehenean, hilaren 13an, irekiko dituzte. Horrenbestez, domekan irekiko dituzte azkeneko aldiz kanpoko igerilekuak, datorren udara arte, bai, behintzat. Hau da igerilekuaren neguko ordutegia: astelehenetik egubakoitzera arte 07:30etik 21:00etara egongo da irekita. Zapatu goizetan, 09:00etatik 13:30ak arte eta arratsaldeetan 16:00etatik 20:00ak arte. Eta domeketan eta jaiegunetan, berriz, 09:00etatik 13:30ak arte.

GIMNASIA ERRITMIKOA

## Arrasateko gimnasia taldekoak dagoeneko lanean

Arrasateko gimnasia taldeko zuzendaritzako lagunak dagoeneko hasi dira datorren ikasturtearen prestatzen. Horren harira, Arrasateko gimnasia erritmikoan interesatuta dauden gaztetxo eta gurasoek jakin dezatela ikasturte berriaren gaineko informazioa jaso ahal izateko batzarra gaur (hilak 10) egingo dutela Arrasateko Institutuan. Batzar hori 17:00etan izango da. Edozelan ere, gaur arratsaldeko batzarrean joateko aukerarik ez duzuenok 610 20 50 71 telefonora deituta ikasturte berriaren gaineko informazio guztia jasoko duzue.

FUTBOLA

# Larraitz Kortabarriak Bartzelona Futbol Taldean jokatu du

Bartzelonak jokalarik arrasatearra fitxatu du, aurre-denboraldian egin duen lana ikusita

X.U.

Azken urtean Eibarren jokatzeko ibili den Larraitz Kortabarriak Bartzelonako Futbol Taldean jokatu du datorren denboraldian. Arrasatearrak, baina, oraindik ez daki talde nagusiarekin edo bigarren taldearekin jokatu duen.

Bartzelonara bidean harrapatu dugu Larraitz Kortabarria, eta Bartzelona Futbol Taldeak nolatan fitxatu duen azaldu digu: "Telekomunikazio ikasketak egitera etorri naiz Bartzelonara, eta, hori aprobetxatuta, Bartzelona Futbol Taldekoek astebetean eurekin entrenatzeko aukera eskaini zidaten. Azkenean, euren egin dut aurre-denboraldi osoa eta ni fitxatzea erabaki


dute". Oraindik, baina, ez daki talde nagusian edo bigarren taldean jokatu duen: "Datozen egunotan sinatuko dut, eta orduan egingo didate fitxa. Lehenengo taldea Super Ligan dago, eta bigarrena Liga Nazionalan. Oraindik, baina, ez dakit non jokatuko dudan". Larraitzek argi dauka talde nagusiarekin jokatzeko sekulakoa izango litzatekeela: "Oraingo asteburuan hasiko dute Liga Txapelketa, eta lehenengo norgehiagoka derbia izango da, Espanyolen kontra jokatu dute-eta. Norgehiagoka hori Camp Nou ondoan dagoen Miniestadin izango da, eta telebistaz emango dute partidua".

**MONDRATIK EIBARRERA**

Larraitz Kortabarria Mondran ibili zen joan den urtera arte.

2002/03 Denboraldia amaitu zenean, Athletic Larraitz fitxatzeko tan egon zen, eta arrasatearrari hala esan zioten, gainera. Lezaman leku bat izango zuela agindu zioten, eta ikasten jarraitzeko jokalarik mondragoetarrak Bilboko ikastetxe batean egin zuen aurre-matrikula. Azkeneko momentuan, baina, talde zuri-gorriak atzera egin zuen, eta Eibar izan zen jokalarik arrasatearra fitxatu zuen taldea.

Aurreko denboraldia Eibarren egin eta gero, arrasatearrak Bartzelonara joatea erabaki du, ikastera. Orain, baina, ikasketak egiteaz gain Bartzelona moduko talde batean jokatzeko aukera izango du: "Beldur apur bat ere ematen dit, ez dakit eta leku guztietara iristeko gauza izango ote naizen".



Larraitz Kortabarria Mondran eta Eibarren jokatu du.



FUTBOLA

# Mondrak Bergararen kontra jokatu du, domekan, denboraldiko lehen derbia

Atxabalpen jeneralean zapatueta jokatu dute, baina Mondraren eta Bergararen arteko derbia domekan izango da (16:30ean)

XABIER URZELAI

**Mondra eta Bergara nor baino nor gehiago izango dira domekan Atxabalpen. Orain dela hiru aste jokatu zuten bi talde horiek elkarren kontra, aurre-denboraldian, eta Bergara gehiago izan zen. Horiek, baina, aurre-denboraldiko kontuak dira.**

Liga hasi baino ez da egin, eta Mondrak eta Bergarak dagoeneko derbia jokatu behar dute. Puntu guztiak balio handikoak badira ere, biek hala biek beharrezko dituzte domekan jokoan egongo diren hiru puntuak, ez Mondrak eta ezta Bergarak ere ez dute eta Liga gura moduan hasi.

Mondrak puntu bat ekarri zuen joan den astean Oiartzundik. Puntu bat, min hartutako jokalariren bat edo beste eta kalera bidalitako bi jokalarik; zigor handiegia lehenengo jardunaldia izateko. Bergara, baina, ez da hobeto hasi. Igor Gordobilen mutilek 2-3 galdu zuten Pasaiaren kontra Ago-

rrosinen. Bergarak ondo hasi zuen norgehiagoka, baina pasaitarrek buelta eman zioten markagailuari. Norgehiagoka hartan argi geratu zen Pasaia kontuan hartzeko kontrarioa dela, eta hirugarren mailara lehenbailehen itzultzeko asmoarekin dabilzala. Horrenbestez, joan den astekoa ikusita, lehenengo jardunaldian egindakoa konpontzeko asmoarekin ikusi ahal izango ditugu etzi Zubiaren eta Gordobilen mutilak, Atxabalpeko zelaian.

## BATZUENDAKO, NORGEHIAGOKA BEREZIA

Hainbat jokalarirendako domekako norgehiagoka berezia izango da. Ander Ruiz de Azua Bergarakoen atea zaintzen ibili da orain arte, eta Ekain Garin Mondrarendako ibili da golak egiten. Bi jokalarik horiek, baina, taldez aldatu dute: Ander Mondran dago eta Ekain Bergaran. Seguru berezia izango dela orain arte taldekide izan direnen kontra jokatzea. Anderrek, baina, itxaron egin beharko du, partidu bateko zigorra dauka eta.



Aurre-denboraldian neurtu zituzten indarrak Bergarak eta Mondrak, eta orduan bergararrak nagusitu ziren (3-0)

## HIZKUNTZAK DENONTZAT

● haur, gazte, helduentzat

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak  
(ingeleza, euskara, hizkuntza, matematika...)

Matrikula epea zabalik

- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Multimedia sistema
- Mediateka dohan
- Ikaslearen banan-banako jarraipena
- Ordenagailu gela eta internet
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Arrasate - Gipuzkoa  
Avda. de Álava, 4 • Tel.: 943 71 20 55  
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
www.cim-idiomas.com

bai&by

frantsesa

portugesa

alemana

ingeleza

italiera



**LIBURUTEGIA/** Erabiltzaileak Euskadiko katalogo bateratuan sartu ahal izango dira.

# Udal Liburutegiko dokumentuak, Euskadiko Liburutegien Interneteko katalogoan

IKER BARANDIARAN

Irailaren bukaeran, Arrasateko Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegi Sarearen Interneteko katalogoan sartuko da. Horren arabera, besteak beste, Monterongo erabiltzaileek beste hainbat liburutegitako dokumentuak kontsultatu eta hartu ahal izango dituzte.

Arrasateko Udal Liburutegiko langileak oso lanpetuta dabilta aspaldian. Izan ere, irailaren bukaerarako Arrasateko Euskadiko Liburutegi Sarearen Interneteko katalogoan egongo da. Monteronen dauden dokumentu guztiei -30.000 inguru- barra-kode berria ipini beharko diete, eta horren ostean erabiltzaileei txartel berriak banatu beharko dizkiete.

Horren aurretik, katalogo horretan egon daitezkeen, Arrasateko datu guztiak kopiatu egin dituzte, eta Monterongo langileak informazio hori guztia ondo dagoen aztertzen dabilta.

Aurtengo ekainean, Irungo, Getxoko, Leioako eta Gasteizko

liburutegiak sartu dira Interneteko katalogo horretan. Irailaren bukaeran, bigarren fasean, beste 25 liburutegi sartuko dira, tartean Arrasatekoa.

## ERABILTZAILEENDAKO ABANTAILAK

Arrasateko Udal Liburutegia lehendik ere bazegoen liburutegien sarean, baina ez Interneteko katalogoan. Interneteko katalogo horrek erabiltzaileei abantailak ekarriko dizkie. Honako hauek: txartel bakarrarekin hainbat liburutegitan hartu ahal izango dira dokumentuak; etxetik Internet bidez jakin ahal izango da liburu zehatz bat hartzeko moduan dagoen edo ez, edo hala ez bada, noiz itzuliko duten; dokumentu baten eskaera berri-

tu; liburuak erreserbatu; eta beste batzuk.


## ARAUAK ERE BATERATU BEHARKO DIRA

Katalogoa bateratuko den moduan, sarean dauden liburutegien funtzionamendua eta arauak ere bateratu beharko dira. Aldaketa hori egiten denean, esaterako, liburu baten maileguren epea 15 egun izango da, baina birritan luzatu ahal izango da. Guztira, 45 egun. Orain arte, epea 20 egun zen, baina behin bakarrik luza zitezkeen -guztira, 40 egun-.

Horrez gain, inork esaterako Gasteizko liburutegi baten liburu bat zorretan badu, ezingo du Arrasatekoan mailegurik egin. Ez diote utziko.

Udal Liburutegiko langileek oraindik ez dakite dokumentu guztiei barra-kodeak ipintzeko lanak noiz hasiko dituzten eta zenbat iraungo duten. Dena den, liburutegiko arduradunen esanetan, baliteke egun batzuez zerbitzua eten egin beharra. Hala ere, bere unean, aldaketa eta berrikuntza zehatzen gainean informatuko dituzte erabiltzaileak.

*Interneteko katalogoan esku hartzeak abantailak ekarriko dizkie erabiltzaileei*



Arrasateko Udal Liburutegiko zerbitzua herritar eta kanpotar askok erabiltzen dute.



## Irailak 16 – Eguena

Bide segurtasuneko arauak eta arriskuen prebentzioari buruzko dekalogo bat banatuko zaie lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei.

## Irailak 17 – Egubakoitza

Arrasateko 5etan Herriko Plazan bizikletak konpontzeko tailerra (ekarri bizikletak konpontzeko)

## Irailak 18 – Zapatua

11:00-13:30 eta 17:00-19:30  
- Bir-Zikleta azoka Seber Altube plazan: bigarren eskuko bizikletak eta osagarriak saldu eta erosteko azoka txikia (saldu nahi den materiala aurrez batzeko: ikasle bakoitzak bere eskolan edo Azokako 17. saltokian irailaren 11n, 11:00 - 13:00 eta irailaren 14an eta 16an, 11:00 - 13:00 eta 17:00 - 19:00 arte. Bestela, deitu Udaletxeko Ingurumen Sailera, 943 79 09 00.  
- Gaztelu puzgarriak

## Irailak 19 – Domeka

- Goizeko 11etan, bizikletan ibiltzea herrian zehar. Irteera Seber Altube plazan eta bukaera Herriko Plazan (etorritako ikasleen artean bizikleta bat zozketatuko da)  
- 12:30ean oztopo eta trebetasun jolasak patin, patinete eta bizikletekin Seber Altube plazan

## Irailak 20 – Astelehena

Arrasateko 7etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan Arrasateko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren nondik norakoak

## Irailak 21 – Martitena

- Arrasateko 5etan txapa tailerra eta txikien artean marrazki lehiaketa.  
- Arrasateko 6,30etan ikasleentzat antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa Herriko Plazan (aurkeztutako argazkien erakusketa jarriko da)  
- Irailaren 16tik 20ra arte, hiribusa doan, bonoa aurkeztuz gero (bonoak etxez-etxe banatuko diren triptikoetan itsatsita joango dira)  
- Irailaren 21ean, hiribusa doan, eta ez da bonorik beharko  
- Irailaren 21ean, hirigunea oinezkoentzat bakarrik izango da



**ARRASATEKO UDALA**  
Ingurumen Saila

**Leintz**  
Garraioak S.L.

**INGURUMENA**  
Zure elkarri dago de ti depende

**IHOBE**  
Ingurumen Jarduera Sektore Publikoaren  
Soziala Publiko de Gestión Ambiental



## ELKARRIZKETA

DESPREZIO/MUSIKA TALDEA

# “Ez dira nesken talde gehiago sortzen, adarra joko dieten beldur dira eta”

IKER BARANDIARAN

Zoritxarrez ez dugu nesken musika talde askorik ezagutzen. Desprezio lauko-teak, lotsa alde batera utzita, jotzeari ekin dio, eta poliki-poliki bere bidea egiten dabilta. Esateko gauza asko dituztela-eta, horretan dabilta.

## Zeintzuek osatzen duzue taldea?

Ainhoa bateria jotzen du, Txurik, baxua, Maitanek, gitarra, eta Irunek abestu egiten du. Txuri arrasatearra da; Maitane eta Irunek eskoriatzarrak eta Ainhoa soralezetarra.

## Noiz eta zelan bururatu zitzaizuen taldea sortzea?

Orain dela hiru bat urte bururatu zitzaizun, baina instrumentuekin eta lokalarekin urte eta piku daramagu. Lagunak egin ginen musika gustuko dugulako, eta musika atsegin dugulako eta esateko gauzak ditugulako egin genuen taldea. Gainera, neska talderik ez dago eta horrek gehiago animatu gintuen. Nesken pentsaera ezagutzera eman behar da, horren hutsunea dago.

## Zein bertsio jotzen zenituzten lehenengo entseguetan?

Eskorbuto, Cicatriz, RIP, MCD..., eta egungo talde batzuenak. Atzerrikoenak oso gutxi. Ez ditugu hitzak ulertzen, eta abesten diogunaren esanahiari garrantzi handia ematen diogu.

## Eta zuek zer abesten duzue?

Bost bat kantu dauzkagu eta beste batzuk erdibidean. Kritikatu gaituen jendea; faxistei; Elgoibarko zapatuetako giro nazkagarriari; itxura fisikoari garrantzia ematen diotenei... abesten diegu. Orain arte gaztelaraz egin ditugu, baina euskaraz ere egin gura ditugu.

## Zuen burua punktatzat daukazue?

Gure helburua ez da punkak izatea ezta punka egitea ere. Irte ten zaiguna egiten dugu, eta



“Nesken pentsaera ezagutzera eman behar da, horren hutsune handia dago”

“Hitzei garrantzi handia ematen diegu. Ez dugu atzerriko taldeen kanturik jotzen”

gehienbat punka da, baina rock-and-rolla ere gustuko dugu.

## Askok esaten dute punka hilda dagoela...

Gutxi batzuk punk musika egiten dugu eta horiek dauden bitartean ez da hilko. Musika estilo eta talde askok jarraitzen dute, baina jendeak ez die arreta jaritzen eta uste dute hilda daudela.

## Zein kontzertu egin dituzue orain arte?

Soraluzeko gaztetxean, Aramaio jaietan eta Maeztun (Ara- ba). Aramaio eta Soraluzen oso harrera ona izan genuen. Zuzenean abestiak oso azkar jotzen ditugu, azkarregi. Taula gainean segurtasun handiagoa hartu beharra daukagu. Hiru ordu laurdeneko kontzertuak izaten dira.

## Arrasateko Vulpessak deitu izan zaituztete. Ados zaudete horrekin? Badaukazue antzekotasunik?

Neskak garela, talde bat daukagula eta punk musika egiten dugula; besterik ez. Jendearen dako erreferentzia errazena da, baina ez da egokiena. Jendeak beti atzera begiratzen du, baina gaur egungo taldeak entzun behar dira. Oraingoak dira daudenak, eta ez lehengoak.

## Nesken musika talde oso gutxi daude. Zergatik?

Beldurratik. Ezagutzen ditugu neskak talde bat egin gura-ko luketenak, baina ez dira ausartzen adarra joko dietelako. Guk animatu egiten ditugu pauso hori ematen. Ea talde gehiago sortzen diren, neskenak eta mistoak!

## Zer da garrantzitsuagoa, ondo jotzea ala jarrera edukitzea?

Biak. Jotzen jakitea garrantzitsua da, baina egiten dena sentitzea ere bai. Eta hitzek ere garrantzi handia daukate.

## Zeri diozue mesprezua?

Matxismoari, batez ere, poliziari, hipokrisiari...

## Zein asmo daukazue orain?

Zuzenean gehiago jo aurretik, gogor entseatu gura dugu.

## KULTURAPILULAK

## Astelehenean, zarzuelarako entsegua

Astelehenean, hilaren 13an, *El huesped del sevillano* zarzuelaren entseguen jarraituko dute. Arrasateko Musika Eskolan egin dute hitzordua, 21:00etan. Ikuskizun hori azaroan eta abenduan egingo dute Amaia Udal Antzokian.

## Datorren asteburuan hasiko dira film emanaldiak

Hilaren 18an hasiko dira Amaia Udal Antzokiko film emanaldiak. Oraindik ez dute zinekluba zehaztu, eta momentuz egubakoitzetan eta zapatuetan emango dituzte.

Irailaren 18an eta 19an, animazioko *Shrek 2* filma emango dute; eta hilaren 25ean eta 27an, Bushen aurkako *Fahrenheit 9/11*.

## Udazkenerako kultura proposamenak

Udaleko Kultura Saila hasi da udazkenerako kultura eskaintza antolatzen. Irailaren 26an, *Sonata segundu batean eta piku* ikuskizuna egingo dute. Eta urrian Kanpin-gags taldeak *Ezetz lepoa jarri* lana egingo du. Aukeran dantza taldeak San Juanetan egin beharreko ikuskizuna urriaren 24an egingo dute.

## Eskoziar gaita jotzeko ikastaroa antolatu dute

Oporren ostean herritar askok askotariko ikastaroetan ematen dute izena. Lagun batzuek eskoziar gaita jotzeko ikastaroa antolatu dute. Urriketik ekainera bitartean egingo dute, bi ordu astean. Interesatuak irailaren 16a aurretik eman behar dute izena, telefono zenbaki honetara deituta: 645 73 12 16 (Joseba).

## Meson Manolo

Eguneko menua  
Karta zerbitzua  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Arrazioak

Bañez Doktorea 3. San Andres auzoan  
Tel.: 943 79 22 40

## Monte taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56



## Lilura OIHALAK

Diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa.  
Esku-poltsak, eskularruak, galtzerdiak...

Zerkaosteta 5, behea.  
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72



E, TXO!

GUREGAIK / GAZTE SORTZAILE SARIK

# Topaguneak Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketa jarri du abian

IKER BARANDIARAN

**Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketa abian jarri du, Gazte Sortzaile Sariak ekimenaren barruan. Eta, hain zuzen ere, egin beharreko lanen gaia euskara da.**


gaia euskara izan beharko da, eta lanek originalak izan beharko dute.

### ZIRRIBORROA AURKEZTU

Interesatuek grafitiaren marrazki zirriborroa aurkeztu beharko dute DIN A3 formatuan eta koloretan. Epaimahaiak gaia, diseinua, teknika eta koloreen erabilera baloratuko ditu.

Grafitiak paretan egiteko lehiakide bakoitzari beharrezkoa duen materiala emango zaio. Hamar horma zati esleituko dira eta horien arteko lehiatik lau sari banatuko dituzte. Grafitia egiteko pareta bakoitzaren tamaina 6 x 2 metro izango da.

Marrakzi zirriborroak irailaren 25a aurretik honako helbidean aurkeztu beharko dira:



ARRASATE PRESS

Grafitiak egiteko zaletasuna gero eta ohikoagoa da gure artean.

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Arlozabal 8 bis. 1c. 48220 Abadiño (Bizkaia).

Irabazleen artean 1.200 euroko lau sari banatuko ditu epaimahaiak.

**MARTITZENEAN, GAZTE TXOKOAK ZABALIK**  
Martitzenean, irailaren 14an, zabalduko dituzte Txatxilipurdik kudeatzen dituen hiru gazte txokoak. Ohiko moduan, 17:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik Musakolako, San Andresko eta Uribarri-Erguingo gazteendako zerbitzuak. Hala ere, Uribarrikoa gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, zabalduko dute, auzoan jaiak dituztelako.

**EGUAZTENEAN, LUDOTEKAK ZABALDUKO DITUZTE**  
Eguaztenean, irailaren 15ean, Txatxilipurdik kudeatzen dituen bi ludotekak zerbitzua ematen hasiko dira. 17:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik biak hala biak, Santa Marina-koa eta Okendokoa.

**UDALEKU IREKIETAKO ARROPAK JASOTZEKO DEIA**  
Txatxilipurdik dei egin die udaleku irekietan ibili ziren ume eta gaztetxoei eta euren gurasoei, uztailean erabilitako arropak jasotzera bulegora joan daitezten.

**BEGIRALE IKASTAROA TXATXILIPURDIN**  
Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urrietik ekainera bitartean egingo dute, zapatuetan. Derrigorrezkoa izango da 18 urte baino gehiago izatea edo 2005ean betetzea. Interesatuek 300 euro eta aterpetzeko gastuak ordaindu beharko dituzte. Informazio gehiago 943 79 54 46 telefono zenbakian.

**KONTZERTUEN AGENDA GAZTETXEAN**  
Datorren asteburuan, bi kontzertu egingo dituzte gaztetxean. Hilaren 17an, Lor taldeak joko du; eta 18an, Lau, Klaun eta Txinaski taldeek.

Topaguneak Gazte Sortzaile Sariak sortu ditu, gazteen izaera sortzailea eta euren ekoizpen artistikoak sustatu eta gizarteratzeko.

Lehenengo edizio honetan Euskal Herriko I. Grafiti Lehiaketa antolatu du. 15 urte baino nagusiagoak diren Euskal Herriko gazteek esku hartu ahal izango dute, bakarka nahiz taldeka. Teknika librea izango da, baina

# Uribarri-Erguingo gazte txokoan, jaiak

I.B.

**Gaurtik, egubakoitza, hasita domekara arte Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte. Auzoko gazte txokoak ere jaietan hainbat ekitaldi antolatu gura izan ditu, gazteek ere parte har dezaten.**

koa zabalduko dute, 16:00etan. 16:30ean, ping-pong txapelketa, Twister erraldoia, eta lepokoak eta hennako tatuajea egiteko tailerrak egingo dituzte. 18:00etan, sari banaketa egingo dute. 18:30ean, gura duten auzotar guztiendako txokolate-jana izango da. Ordura arteko ekitaldi guztiak gazte txoko barruan eta haren alboan, kalean, izango dira.

19:30ean, berriz, karaokea egingo dute Usaetxe plazan. Eta 22:30ean, *Baloia* filma emango dute plaza berean.

Txatxilipurdik kudeatzen du Uribarri-Erguingo gazte txokoa, eta elkarte arduradunek uste dute jai askotan ez dela gazteendako ekintza nahikorik izaten. Gazteek jaiak ere goza ditzaten, eta modu berean auzoko gazte txokoa ezagutzera emateko, jai egitaraua antolatu dute.

Txatxilipurdiko zazpi bat lagun arduratuko dira guztia antolatzeaz, eta Uribarri-Erguingo erabiltzaileek eta baita San Andreskoek ere ilusio handia dute jaietarako.

Gaur, egubakoitza, gazte txo-

**EKITALDIK, EGUBAKOITZ ETA ZAPATUAN**  
Bihar, zapatua, ere gazteendako ekitaldiak egingo dituzte. 10:00etan, futbito txapelketa mistoa egingo dute. 12 eta 18 urte artekoek esku hartu ahal izango dute, eta komeni da gaur, egubakoitza, ematea izena Txatxilipurdin. Horren ostean, 11:00etan, gazte partxis lehiaketa egingo dute gaz-



ARRASATE PRESS

Txatxilipurdik auzoetan ere hainbat ekitaldi antolatzen ditu gazteendako.

te txokoan.

Ez da lehenengo aldia Txatxilipurdik auzoetako jaietan, gazte txokoekin baliatuz, gazteendako ekitaldiak antolatzen dituela.

Txatxilipurdiko arduradunek

espero dute ekitaldiek arrakasta izatea, eta gazteek ondo erantzutea. Jakina, ekitaldiak herriko gazte guztiei zuzenduta daude, ez bakarrik Uribarri-Erguingoei. Ea bada, halakoak urtero antolatzen dituzten!

**Uarkape**  
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

Maritxu egunerako dena prest!  
Ondo pasatu!!

Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ESKORIATZA

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA



## ZAHARREN ETXETIK



Arrasateko AFAGI elkarteak ere laguntza handia ematen die gaixoei eta euren senideei.

## Alzheimerraren Nazioarteko Egunerako hainbat eskaera dituzte

IKER BARANDIARAN

Irailaren 21ean Alzheimerren Nazioarteko Eguna ospatuko dute. AFAGIk, Gipuzkoako alzheimer gaixoen senitartekoen elkarteak, hainbat ekitaldi antolatu ditu irailean egun horren harira. Hilaren 7an, *Aspectos bioéticos en el Alzheimer* leloa duen berbaldia egin zuten Donostian. Martitzenean, 14an, *Afrontar el Alzheimer* leloa duen mahai-ingurua egingo dute Irunen. Gerora ere egingo dira beste ekitaldi batzuk: 21ean, berbaldia egingo dute Oretan; 23an, Bergaran egingo dute berbaldi hori; 25ean, informazio mahaiak ipiniko dituzte Donostiako kaleetan. Jardunaldiei bukaera emateko, hilaren 30ean, gaixotasun horren gaineko mahai-ingurua egingo dute Lasarte-Orian.

**ESKAERAK ERE BADITUZTE**

AFAGI urtean 150 bat kasuz arduratzen da, eta esperientzia handia dauka gaixotasun horren gainean.

Horren harira, elkarteak hainbat eskaera egin gura dizkie erakunde publikoei. Alzheimerra minusbaliotasuntzat har dezatela gura dute, eta Gipuzkoan dauden gaixoen benetako errola egitea ere bai. Horrez gain, elkarteak ordezkariak gura dute gaixotasun

### Dementzien kopuru handia

**AFAGIko arduradunek ez dute inor beldurtu gura, baina azpimarratu dute Alzheimerre dela 65 urtetik gorako lagunek duten dementzietatik hirugarren ohikoena. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, erresidentzietan dauden edo eguneko zentroetara joaten diren egungo lagunen %80k daukate buruko dementziaren bat.**

horren gaineko ikerketa zabalagoak egitea, horren premia ikusten dute-eta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ongizateko arduradun Jose Luis Madrazo ados dago AFAGIrekin, eta arduratuta dago gaur egun Alzheimerrek 5.000 familia baino gehiagori eragiten dielako.

**SENITARTEKOEI LAGUNTZA ESKAINI**

AFAGIko presidente Kepa Aulestiak nabarmendu zuen garrantzitsuena dela gaixotasun larri horren gaineko informazioa ahalik eta gehien zabaltzea, ezjakintasun handia dagoelako.

Are gehiago, Aulestiaren esanetan, gaixoa ez da jabetzen daukan benetako arazoaz eta kasu gehienetan ondoan duen senitartekoak hartu behar ditu horren gaineko erabaki garrantzitsuak, hartzeko oso zailak direnak.

Horretarako, Aulestiak uste du ezinbestekoa dela informazio hori zabaltzea. Horrez gain, AFAGIk ezinbestekoa ikusten du etxean senitarteko gaixoak zaintzen dituztenei zelanbaiteko lan-babesa bermatzea.

## LABUR

### Uribarriko ariketa fisikoko eskolak irailaren 16ra arte atzeratu behar izan dituzte

Uribarriko erretiratuen ariketa fisikoak pixka bat itxaron behar du. Uribarriko elkarteak arduradunek aditzera eman dute Iturripeko kiroldegian egiten dabilzan lanen ondorioz, hango instalazioak ezingo direla erabili urriaren hasiera arte.

Urrira arte itxaron beharra ez izateko, arduradunek erabaki dute lehenengo eskolak elkartearen azpiko etxabearen ematea. Eguenean, hilaren 16an, hasiko dira, 10:00etan.

### Urriaren 1ean, Maritxu Kajoi egunean, luntxa egingo dute Abaroa elkarteak

Abaroa elkarteak arduradunek aditzera eman dute urriaren 1ean, Maritxu Kajoi egunean hain zuzen ere, luntxa egingo dutela. Azkeneko urteotan, Abaroako erretiratuek jai egun berezi hori ospatzeko ohitura hartu dute. Luntxa bazkideendako izango da, eta interesa dutenek Abaroako bulegoan eman behar dute izena datorren astelehenean, hilaren 13a, irailaren 22a bitartean. Luntxera eraman beharreko gonbidapena emango diete.



### Abaroako dantzak urrian hasiko dira

Aurreko astean iragarri genizuen erretiratuen elkarte gehienek ikastaroen eta bestelako eskaintza berehala hasiko zutela. Izena emateko epeak zabalik dituzte, eta eskaintza ez da edonolakoa.

Esaterako, Abaroan dantza ikastaroak iragarri dituzte. Irakaslea Marian izango da, iaz ere ibili zena, eta halakoak irakatsiko ditu: baltsea, fox trota, tangoa, pasodoblea, boleroa, txa-txa-txa, rock-and-rolla, salsa, merengea, batxata, ballenatua eta beste batzuk. Interesatuak jo bulegora. //B.

## BITXORI

ile apaindegia



Erdiko kale 52  
Tel.: 943 79 88 32



Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

# MEHER

Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

Marixutarako eskaintza zabala  
arropa eta osagarrietan.





EZETZASMATU



'ARRASATE, LANGILEEK ERAIKITAKO HERRIA' LIBURUA

Zein da argazkian ikusten duzuen lantegia?  
Arrastoa: gaur egun erabat eraldatuta dago lantegia zegoen inguru hura.

**Super BM**

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Carbonell olioa**  
0,4° litroa

**3,39€** 564 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MARI KARMEN OSINALDE**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mari Karmen!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Elektra lantegia.**


ARRASATEKOHISTORIA

# Gerraosteak behar gorriak ekarri zituenekoa

'NIRE HAURTZAROKO...' /VELEZ DE...

**L**eku gehienetan moduan, Arrasaten ere bizi izan dira behin baino gehiagotan premia gorriak. Hara Josemari Velez de Mendizabal historiagileak bere liburuan jasotakoa:

“Gerra zibilaren osteko urteetan - izurrite guztien antzera, eta gerrak gizakien ezintasunak sorturiko izurritetzat hartu behar ditugu - bere arraildura sakonak utzi zituen arrasatearren. Oinarritzko premien errealitatea nabari zitekeen hainbat senditan eta, gorago nioen bezala, esfortzu guztiak gutxi ziren herriko bizimodura normaltasuna eramateko. 40. dekadako azkenaldian, On Jose Luis Iñarra erretorearen ekimenaz eratu ziren lehendabiziko laguntzak, behar-gorrian aurkitzen zirenentzat. Horrela, Asuncioneiko ikastetxean “arropategi” bat antolatu zen eta bertan zenbait emakumek herriko behartsuentzat arropak josten zituzten. Ekintza Katolikoaren lana arlo askotara zabaldu zuten eta horretan aritu zen 1958ra arte. Urte hartan Caritas erakundeak bere antena ipinitas erasaten eta bere estalpera bildu zituen ordura arteko zerbitzu humanitarioak.



'NIRE HAURTZAROKO ARRASATE' LIBURUA

Arrasatearren elikatze-sistematizazioa normaltzen joan ahala, alkoholismoa gertatu zen gaixotasun berria.

Erakunde horietatik gehien eskainitako laguntza, janariak banatzeari zegokiona izan zen. Gure adinekoren arteko zeinek ez ditu iparramerikar gazta eta hautsezko esnea gogoratzen? Egunerogunero, sakristauareneko etxabearen esnea preparamen zuten

*Egunero zenbait emakumek esnea eta gazta ematen zieten oinarritzko premiak ase beharra zutenei*

zenbait emakumek, goizeko lehen orduan. Bertara azaltzen ziren euren oinarritzko premiak asezteko beste baliabiderik ez zutenak. Horrekin alperrik zabiltzie esaten zieten Ekintza Katolikoaren arduradunei, gazta amerikar hori haren zati bat eta litro pare

bat esne betiko sendi alproja eta ganorabako horietakoen bati ematea suertatzen zenean. Baina On Jose Luis Iñarrak ez zion inorri laguntza ukatu, ahal izan zen bitartean.

Arrasatearren elikatze-sistematizazioa normaltzen joan ahala, alkoholismoa gertatu zen gaixotasun berria, organismoak elikadura desegokiak hondatuta, nonbait. Oso arazo larriak bizi izan ziren hainbat etxetan, ondorioak berehala azaldu zirelarik: tratu txarrak emakumeei, ume rakitikoak, giro hobeago baten bila harrera zentroetara aldatu beharreko haurrak... Eta emakumeen alkoholismoak ez zuen arrasatear gizartean bere aurkezpena atzeratu. Alkoholismoaren kalteei aurre egiteko prebentzio-kanpaina erdi ezkutuei ekin zitzaion zenbait instantzietatik, eskola publiko, pribatu, lantegi eta zirkulu erlijiosoetan begirale anonimoak aritu zirelarik, gaixotasunaren arrastoak non eman zitezkeen antzemateko.

Ekintza Katolikoak oso harreman estuak zituen herriko ospitalearekin. Herritar behartsuen behin-behineko premiei erantzun, bateratua ematen zien, ospitalean beti baitzegoen oheren bat eta babes egokia kasu horientzat”.



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko irailaren 10a / 120. zenbakia

KOORDINATZAILIA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Hamahiru urteko ibilbidearen ostean, Bañera elkarteak desagertu egingo da

UBANE MADERA

Jasotako azken berrien arabera, Bañera Kirol Elkarteak betirako desagertuko da. Elkartearen presidente Josu Bideburuk baieztatu digu ez dela inor agertu elkartearen arduratze gertu dagoenik. Hortaz, elkarteak desagertu egingo dute laster.

Opor aurretik zeuden beldurrak konfirmatu egin dira orain: inor ez dago gertu Bañera Kirol Elkartearen arduratze gertu dagoenik. Hala jakinarazi digu elkartearen presidente Josu Bideburuk. Martxoan, denboraldia bukatzearen zegoela jakinarazi zuten Bañerako zuzendaritzak (Josu Bideburuk eta Alfonso del Campok) taldea uzteko asmoa zutela. Edozelan ere eta taldeko kirolari eta entrenadoreek aurrera jarraitzeko gogoia zutela eta, deialdia egin zuten euren ordekoak aurkitzeko. Maiatzaren 31ra

arteko epea eman zuten horretarako, eta ezer ere ez. Elkartearen beste aukera bat emateko, luza-tu egin zuten epea eta hala ere ez zen inor agertu. Ia sei hilabete pasatu dira harrez geroztik eta inork ez die erakutsi lan hori hartzeko asmo seriorik.

Gauzak horrela, zuzendaritzako bi kideek lehenago hartutako erabakia berretsi eta beste-lakorik ez bada, taldea desagertu egin beharko dutela esan digute. Hala, Arabako Foru Aldundiarekin eta areto futbol federazioarekin harremanetan jarriko dira laster, taldea behin betiko desagertuko.

*Bañera Kirol  
Elkartearen  
gidaritza hartzeko  
gertu dagoenik ez  
da agertu*

### KIROLARIAK-ETA TRISTE

Josu Bideburuk esan digunez, taldeko neska-mutilak triste daude egoera horren aurrean, lanerako norbait aurkituz gero, gustura asko egingo zutelako aurrera. Horrez gainera, gaur egun 30 babesle eta 70 bat bazkide ditu Bañera Kirol Elkarteak.

### HAMAHIRU URTEKO IBILBIDEA

Hamahiru urteko ibilbidea egin du Bañera Kirol Elkarteak: 1991ko martxoaren 6tik 2004ko irailera arte. Urte horietan guztietan jardun dute lanean Josu Bideburuk eta Alfonso del Campok, eta nekatuta daudela eta hartu zuten taldea uzteko erabakia.

Urte luzez senior mailakoekin ibili dira Bañerakoak eta haien taldea desagertu zenean, eskolako umeekin hasi ziren. Gaur egun hala zebiltzan, ikasle osoak bi talde zeuden Bañeraren barruan: mutilen talde bat eta nesken beste talde bat.



Elkartearen kirolariak eta gertu leudeke elkartearen jarraitzaileak.

## Alaiak Erretiratu Elkartearen eguna ospatuko dute irailean

U.M.

Alaiak Erretiratu Elkartearen eguna ospatzeko ekitaldiak antolatuko dituzte irailaren 10ean, 11n, 15ean eta 16an izango dira ekimenak: txangoa, elkartearen bazkideen bazkaria, osasunaren gaineko hitzaldia eta diaporama, besteak beste.

Esandako moduan, gaur, barikua hasi dira ekitaldiak. Txangoa egin dute Iruñera, 09:00etan aterata Aramaiotik. Hango katedralari bisita egin diote; gero alde zaharrean txikiteoa egin dute eta horren ostean bazkaria, musika eta guzti.

### BAZKIDEEN BAZKARIA

Berriz, bihar, zapatua, meza esango dute 13:00etan, eta 14:00etan Alaiak elkartearen bazkideen bazkaria egingo dute. Elkartearen pre-

sidente Jabier Uribarrenek esan digunez, bazkal ostean sariak banatuko dizkiete elkartearen nagusiei, orain arte saririk jaso ez dutenei.

### OSASUNAREN GAINEKO BERBALDIA

Eta hurrengo astean, eguaztenean, osasunaren gaineko hitzaldia izango da kultura etxean, 17:00etan hasita. Aramaioko mediku Jabier Españak eman behar zuten hitzaldia, baina ezin duela eta, haren partez Juan Kruz Gartzia Kortazar medikuak emango

*Besteak beste, Juan  
Kruz Gartzia  
Kortazar medikuak  
osasunaren gaineko  
berbaldia egingo du*

du hitzaldia. Oro har, pertsona nagusien osasunaren gaineko berbaldia izango da (elkadura, pase-oak...), baina edozein joan ahal da entzuterara.

Eta bukatzeko, eguenean, hilak 16, maien ibilbidearen gaineko diaporama izango da kultura etxean, 17:00etan hasita. Patxi Sanchez gasteiztarrek egingo du diaporama. Eta Jabier Uribarrenek esan digunez, aurreneko aldia da elkartearen eguna ospatzeko halako zerbitzu egiten dutela.

### URRIKO AZKENEKO ASTELEHENA

Bestalde, Alaiak elkartearen egunaren ospakizunaz gain, elkartearen presidentek adierazi digu dagoeneko hasi direla prestatzen urriko azkeneko astelehenerako txangoa. Ohitura dute Gernikara bidaiari egiteko egun horretan eta aurtengoa ere prestatzen hasi direla jakinarazi nahi izan digute.

## Oraingo astean zabaldu dute Udal Kiroldegia

U.M.

Iragarritakoa bete eta oraingo astean zabaldu dute berriro ere Udal Kiroldegia. Nahiz eta enpresa berri batek hartu kiroldegia, Mertxe Mondragonek alkateak adierazi digunez, orain arteko ordutegi bera izaten segituko du. Edozelan ere, eguneroko erabilerak zehaztuko du hori.

Herritar askok, batez ere gazte- txoenek pozik ikusiko dituzte berriro ere zabalik Udal Kiroldegiko ateak. Izan ere, kiroldegia kudeaketa esleitu eta gero, oraingo astean zabaldu dute.

### ATZERAPEN TXIKIA

Berez, oraingo asteko astelehenean zabaldu behar zuten kiroldegia, baina alkateak jakinarazi digunez, lan batzuk egiten ibili dira eta bi egunez, garbiketa lanak egin behar izan dituzte. Horrexegatik

ezin izan dute udal zerbitzu hori lehenago zabaldu.

### GASTEIZKO ENPRESA

Gasteizko Eko enpresari esleitu dio Udalak kiroldegia kudeaketa. Mertxe Mondragonek esan digunez, esleipen horren arabera, datozen bi urteotan jardungo dute gasteiztarrek lan hori egiten.

Kudeaketa berriak ekarriko dituen aldaketan gainean, berriz, adierazi digu ez dutela aldaketarik egiteko asmorik; hau da, orain arteko egutegiarekin eta ordutegiarekin segitzeko asmoa dutela, betiere, kiroldegia erabilerak kontrakoa esaten ez bada.

### BUROKRAZIA KONTUAK

Bestalde, kiroldegia horrenbeste denboran itxita egotearen zerbait herritarren kezak direla eta, alkateak esan digu hala izan dela, denbora luzez egon dela itxita, baina burokraziaren eraginez gertatu dela hori.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak) .....	945 44 53 40
Botika .....	945 44 50 03
Udaletxea .....	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) .....	945 45 52 52
San Martin Eskola .....	945 44 50 04
Taxia eta autobusak .....	945 44 50 33
Udal Kirodegia .....	945 44 53 35
Postetxea .....	945 44 50 83
Zulako Eskualdea .....	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) .....	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**BARIKUKO ZINEMA**

Oraingoan, Peter Webber zuzendariaren *La Joven de la Perla* filma emango dute. 91 minutuko drama da, Erresuma Batukoa.

**TESTU LIBURUAK EROSTEKO**

Irailaren leian hasi da 2004-2005 ikasturterako testu liburuak erosteko Aldundiaren laguntzak eskatzeko epea. Urriaren 15era arteko astia izango da horretarako. Honako hauek dira baldintzak: Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan 2004-2005 ikasturterako matrikulatuta dagoen edozein ikasleren gurasoek zein tutoreek eska ditzakete laguntzok. Horretarako, Araban erroldatuta egon beharra dago; eskatzailearen nortasun agiriaren edo pasaportearen eta familia liburuaren fotokopia eramane beharra daude; ikaslearen erroldatze zedula 2004an eguneratuta izan beharra dago; 2004-2005 ikasturteko matrikularen ordainagiria aurkeztu beharra dago, eta liburuaren faktura originalak ere.

# Aste bukaeran, Eguzkierripako jaiak eta Andra Mari kofradiaren eguna

UBANE MADERA

**Bariku iluntzean hasi eta domekan bukatuko dira Eguzkierripa auzoko Andra Mari jaien ospakizunak. Hala, barikuan eta zapatuan auzotarrek antolatutako ekimenak izango dira; eta domekan, berriz, Ibabeko Andra Mari kofradiak antolatutakoak.**

Auzotarren arteko afariarekin hasiko dira Eguzkierripako jaiak, bariku gauean. Azken urteotan moduan, auzoan elkarerik ez dutenez, kalean egingo dute afari hori. Zapatuan, berriz, Eguzkierripan izango da jai. Eguerdian meza esango dute Andra Mari ermitan eta gauerako dantza saioa prestatu dute Gardoki anaiekin. Besteak beste, horri guztiorri laguntzen, barra muntatuko dute auzotarrek, edariak saltzeko.

**IBABEKO ANDRA MARI KOFRADIA**

Eta domekan, Ibabeko Andra Mari kofradiaren eguna izango



Zapatuko eta domekako ospakizunak Andra Mari ermitan egingo dituzte.

da. Kofradiako presidente Adrian Abarrategik jakinarazi digunez, hasteko, meza esango dute ermitan, 13:00etan, bereziki aurten

hil diren kofradiako bi kideen alde. Horren ostean, hamarretakoa egingo dute eta ondoren, urteko kontuen berri izateko, kofra-

diako kideek batzar orokorra egingo dute, bazkalordura arte. Izan ere, ohiturari jarraituz, 14:30ean, kofradiako 81 lagunek kofradiako areto nagusian bazkalduko dute.

**ERMITA BERRITUTA**

Jai giroaz gain, Eguzkierripako jaietara doazenek Andra Mari ermitaren berritutako itxura ere ikusiko dute. Izan ere, aurten ermitaren hormak eta sakristia konpondu egin dituzte. Horren hari-ara, Adrian Abarrategik jakinarazi digu bereziki Jesus Zabala ibili dela lanok egiten eta esker ona eman nahi diola kofradiaren ize-nean. Eta ermitaz gain, ermitaren inguruak ere txukun ipini dituzte aurten. Kasu horretan, Udalak, besteak beste, jarleku berriak ipini ditu, herritarren erabilerarako.

Horren guztiorren ondorioz, eta eguraldiak laguntzen badu, paraje ezin hobea izango da Eguzkierripako Andra Mari ermita asteburuan joan eta bisitatxo bat egiteko.

**BOTEPRONTOAN/ Esteban Altuna · Eguzkierripako auzo alkatea**

*“Nire ustez, Aramaion gehien ahaztu duten auzoa da Eguzkierripa; gu beti gara azkenak”*

**A**ramaio auzoetako ibilbidearekin jarraituz, Eguzkierripa dugu berbaigara oraingo honetan. Esteban Altuna da hango auzo alkatea. Andra Mari ermitan izan da gure zain, auzoko kontuak esateko:

**Eguzkierripan bizi zara, baina jaiotzez ere hangoa zara?**

Ez. Gasteizen jaio nintzen, Arrasatera joan ginen bizitzera eta oraingo irailean 16 urte egingo ditugu Eguzkierripan bizitzen. Araneke antzinako argi-errotan bizi gara. Errota hori hemengo baserrikoek eta aramaioarrek elkarte moduan erabiltzen zuten eta orain etxebizitza da.


**Alkate zaren aurreneko aldia da?**

Bai. Hauteskundeak egin genituen, baina ez dira oso hauteskunde demokratikoak izaten, auzotarrek lehenagotik erabakita dutelako zein izango den hurrengo alkatea. (Barre)

**Eta pozik zaude, ala...?**

Bai. Ahal duguna egingo dugu. Edozelan ere, guk ez dugu botere exekutiborik, Udalaren eta auzoaren arteko bitartekariak besterik ez gara. Gaur egun zein egoeratan dago Eguzkierripa?

Nire ustez, Aramaion gehien



ahaztu duten auzoa gara. Edozer egiten dela ere, gu azkenak gara. Adibidez, errepideak egin zituztenean gu izan ginen azkenak eta saneamendu, gas eta ur kontuei dagokienez, oraindik egin barik ditugu. Hain zuzen ere, azken hiru lan horien gaineko proiektua aurten egin behar dute. Espero dezagun hori horrela izatea, eta ea datorren urtean lanak hasten diren.

**Horiez gain, zeintzuk dira auzoak dituen behar nagusiak?**

Bueno, garrantzi txikiagoko lanak ere badaude: errepideak zaindu, konponketa txikiak egin... baina lehenengo esandako hiru lanak egitea lortu behar dugu orain.

**Auzotarren artean ondo konpontzen zarete?**

Bai. Giro ona dago. Askotan egiten ditugu auzo lanak bide

bazterrak garbitzeko eta halakoetarako, eta alde horretatik ondo konpontzen gara gure artean. Eguzkierripan falta dena da auzorako elkarte bat edo halako zerbaite. Aramaion auzo guztietan dago halako bat, eta hemen ez.

**Eta gaur egun non elkartzen zarete, bada?**

Normalean hemen, ermitan. Hain zuzen ere, horixe izango zen leku aproposa elkarte egiteko, baina...

**Eguzkierripari zelako etorkizuna ikusten diozu? (Etxe gehiago egingo dituzte...)**

Ez dut uste etxe gehiago egingo dutenik. Azken urteotan, geu izan gara etorri garen azkenak. Hori bai, Eguzkierripan gertatzen dena (bueno, Eguzkierripan eta orokorrean, Aramaio osoan) zera da: mutilzahar piloa dagoela. Ez dakit esaten zenbat, baina ia baserri guztietan dago bat baino gehiago.

**Bada, neskazarren autobusen bat-edo antolatu beharko duzue, ala?**

(Barre) Ez pentsatu. Horren gainean berba egin dugu askotan. Mutilzahar gehienak nagusiak dira, orduan... Neskazarren ez daude horrenbeste. Hortaz, esanda utziko dugu, ea norbait animatzen den...

*“Saneamendu, gas eta ur kontuak oraindik egin barik ditugu”*

*“Ez dakit esaten zenbat, baina ia baserri guztietan dago mutilzahar bat baino gehiago”*



## ERRETRATUZAHARRA

Lau berba  
Zaitegiren  
gainean

Urteurren berezia izan da gu oporretan geundela: Jokin Zaitegi hil zela 25 urte. Gizon hark literaturarendako eta euskararendako izan zuen garrantzi nabarmena kontuan hartuta, ezinbestekoa iruditu zaigu berriro ere gogora ekartzea, oso modu laburrean bada ere.

Hasteko, oraingo honetan aukeratu dugun argazkian agertzen direnen artean, hiru lagun aurkeztuko ditugu: goian ezkerrean dagoena Nikolas Ormaetxea *Orixe* da, Jokin Zaitegi ondoko abadea da eta eskuma-eskuman dagoena Andima Ibiñagabeitia. Hain zuzen ere, hiru idazle horiek izan ziren *Euzko Gogoa* aldizkariaren zutabeak. Eta aldizkari hori oso garrantzitsua izan zen, lehen euskal kultur aldizkaria izan zen-eta. Bitxikeria moduan, Guatemalan jaio zen *Euzko Gogoa*. Josemari Velez de Mendizabalek *Hegats* aldizkarian honako idatzia jaso zuen horren gainean, Josulagundiak Zaitegiri idatzi ziona: "Me he enterado de que aquellas excelsas cualidades que le dio



el Señor no se han eclipsado todavía: el dominio literario y el ánimo indomable con los que, incluso en una Guatemala sin colonia vasca, ha obtenido Vd. una revista redactada totalmente en euskera. El desierto floreció".

Bestalde, Jokin Zaitegiren idazle, itzultzaile eta abertzale izaera erakusteko, honako idatzia aukeratu dugu:

*Euskalerrri zarra gur (e) Euskadi berri Gerta ledin ari gaituzu lanean: Bat egin dezagun euskal-mugapean Geranok, berori baitugu Aberri. (...) Sortu dugun erri onetan lankide Geranok dezagun op (a) askatasuna: Europa'ko erri gera kidez-kide, Gutarteko nausi biz anaitasuna Lengoa oinarri, oraingoa bide Egingo baitugu, gur (e) etorkizuna*

Halako maitasuna zion aberriari eta euskarari, osasuna eta dirua, biak inbertitu zituen euskararendako eta aberriarendako. *Gogorik denean aldaparik ez leloa izan zuen oinarri.*

**Argazkia:** *Hegats* aldizkaria eta lokin Zaitegi (1906-1979) liburua.

**Urtea:** joan den mendeko 50-60ko hamarkadak.

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Maalako  
Errabala  
auto barik

Erdirigunea zaharberritzeko proiektuetako bat Maalako Errabala konpondu eta oinezkoendako egitea zen. Lehenik eta behin, orduan zegoen asfaltoa jaso eta horren ordez harria ipini zuten. Gainera, etxeetako fatxadetan zeuden Telefonika-ko eta Iberdueroko kableak lur azpitik sartu zituzten. Eta ur sarearen zati bat ere konpondu zuten.



≈ 1996 Maalako Errabala eraberritzeko 240.000 euro inguru behar izan zituzten. Hilabete-an egin zituzten lanok.



2004 Abuztuan, Maalako Errabalako zorua konponitzeko lanetan ibili dira langileak. Eta txukun geratu da. Bestela, galdetu argazkiko gaztetxoari.



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



**ZAHARBERRITZEAK**

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**  
Leihoak eta itxierak

**Egur aroztegia**  
Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiak.

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak


**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82




# GRUPO RKUZ

1950  
Zure etxea da  
2004




**RKUZ**  
ALTZARIAK  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIAK  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



**RKUZ**  
SUHARDE INTEGRALA  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**RKUZ**  
ELEKTRAGAILUAK  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA



expert 

FAGOR 



*Maritxu nora zoa  
ene  
Iturrira Bartolo  
nari  
iturrian zer dago  
ardotxo luxuria  
biok edango da  
nahi degun gait*

# Zure ametsetako trajea dugu...

Aukerarik zabalena  
festarako soineko,  
barruko moda  
eta osagarrietan.

Maritxu Kajoi  
2004

*Casa Ceciaga*

Maalako Errabala, 3  
ARRASATE  
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Lidiaren MIS LUPOS betaurrekoak  
sendotutako kristalekin

orain **58€** bakarrik

Lauraren BONARDI armazoiak

orain **35€** bakarrik

# MULTIESKAINTZA

## MULTIOPTICAS

LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN

J. Carlos Guerra 1  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

Bidebarrieta 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

Esmalteria Plaza  
Tel.: 943 51 78 11  
**ERRENERIA**

Mendibil M. G.  
Tel.: 943 63 99 01  
**IRUN**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel.: 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**